


EUSKERA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2019



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

Fanzine-tailerra Klari Moreno eskutik

Fanzinea norberak ateratako argitalpen bat da, eta tresna ezin hobea geure sorkuntzak banatzeko. Klari Morenok Borja Cresporen laguntzaz emango duen tailer honetan, hainbat gai jorratuko ditugu: nola ekoitzi gure argitalpena, zein fanzine-mota dagoen, eta nola egin geurea baliabide handirik erabili gabe.

Fanzine bat aurrera ateratzeko, ez da beharrezkoa marrazkilari edo idazle handia izatea. Tailerra amaitzean, parte-hartzaile bakoitzak bere lana edukiko du, etxera eramateko edo gainerako parte-hartzaileekin trukatzeko moduan.

Lehenengo aldia: Aurkezpena eta fanzineekiko harremana.

Zer da fanzine bat? Zein fanzine-mota dago? Artista izan behar al da bat sortzeko? Non erosi ahal ditut? Nola banatzen dira fanzineak? Galdera horiei erantzuna emango diegu, era askotako fanzineak erabiliz, formatu eta izaera desberdinetakoak, eta begiratu eta ukitu ahal izango ditugu. Haietaz eta haien istorioez hitz egingo dugu.

Bigarren aldia: Fanzine txiki bat sortzea.

Tailerraren bigarren aldian, fanzine bat sortuko dugu. Trikimailu txikiak ikasiko ditugu etxean maketatzeke (maketazio analogiko eta digitalekoak), argitalpen bat ateratzeko egokiak, eta nola eta non inprimatu landuko dugu. Aldi honetan, dinamika errazak erabiliz, parte-hartzaile bakoitzak bere fanzinea sortuko du, folio bakarra erabiliz, eta testua, collagea, marrazkiak... gaineratuz.

////////////////////////////////////
Maiatzak 23, osteguna

17:30-20:30

**Medialab 2. 2 Solairua
Mediateka BBK**

3€/2€ Az Txartelarekin

**Sarrerak: Infopuntua eta
www.azkunazentroa.eus**

25 plaza
////////////////////////////////////

